

LAGUNTZA GUZTIA HERRI PALESTINARRARI



Abenduaren 27an hasi zen Gazaren inbasioa, ejerzito israeldarraren aldetik. Eraso honek 900 hildako baino gehiago sortu ditu dagoeneko baita milaka zauritu ere, gehienak poblazio zibilaren artean, emakumeak eta haurrak tartean daudela.

Gazan bizi diren milioi eta erdia guetto batean bizi dira. Ezin dira bertan sartu ezta atera ere. Ez dute botikarik, argirik, urik, elikagairik. Israel nazioarteko hitzarmen guztiak hausten ari da, baita gerrari buruzkoak ere (haien artean Ginebrako konbentzioa dagoela...).

Ospitalek ez dute bitartekorik zauritutakoak atenditzeko. Ez da jakiten zenbat diren hildakoak, zauritutakoak ezta zenbat pertsona dauden harrapatuta ere bonbardeatutako etxeetan eta borrokak egiten ari diren lekuetan. Anbulantziak eta suhiltzaileen kamioiak eraso egin dituzte eta toki horietara joateko beldur dira. Ejerzito israeldarrak ez die pasatzen uzten kazetariei.

Bakearekin eta herrien arteko bakezko bizikidetzarekin konpromisoa duen gure elkartetik Israel hasi den sarraskiaren aurkako iritzia adierazten dugu.

Nazioarteko Komunitatearen erantzunaren pasibotasuna, geldotasuna eta porrota salatzen eta kondenatzen dugu; hain zuzen ere NBE-rena, hau bezalako egoerak ahalbidetzen baitu, beto eskubidea duen AEB-k izaera unibertsaleko gaitzespen hau blokeatu ahal duelako. Zapateroren gobernuak eman duen erantzun ambigua ere salatzen dugu, Israelgo enbaxadorea kanporatu beharrian, "lagun" gisako errieta egin diolako.

Israel herri palestinarraren aurka burutzen ari den operazio militarra berehala gelditu dadin eskatzen dugu eta bakeari buruzko elkarrizketak berehala has daitezten, nazioarteko bitartekaritzarekin.

Ibilaldi batera deitzen dugu urtarrilaren **16an, 20:00etan Irungo Zabaltza plazan**, herri palestinarrarekiko elkartasuna adierazteko.

ELKARTASUNA HERRI PALESTINARRAREKIN!!!

BUKA DEZAGUN HERRI HONEN GENOZIDIOAREKIN!!!



“Nicolas Guereñain” Irungo Errepublikarrak